
ARTZINIEGA
SANTUTEGIA
SANTUARIO
SAN ANTONIO
OTSATI
PEÑALBA
PRESA
ARTZINIEGA MUSEOA
MUSEO ARTZINIEGA
ALDE ZAHARRA
CASCO HISTÓRICO
MENDIETA
SOXOGUTI - BERRONES
GR-284
UDALETXEA ETA FRONTOIA
AYUNTAMIENTO Y FRONTÓN
P
4
1
2
3
5
GANZABALA
SOXOGUTI
LASTRAKO ZUBIA
PUENTE DE LA LASTRA
SANTXOTENA MUSEOA
MUSEO SANTXOTENA
BILBO
GASTEIZ

# ARTZINIEGA

Artziniega historia luzea duen hiribildua da. Bizkaia eta Burgos artean modu estrategikoan kokatua. Gaztelako Meseta Bizkaiko kostaldearekin lotzen zuten antzinako merkataritza-ibilbideek zeharkatuta dago.

Ezagutzen diren lehen lekukotza historikoak Brontze Aroaren amaierako zeramika-hondarrak dira. Erretes Tudelako kobazuloan aurkitutakoak. Handik gertu, Gordelizen, erromatar hilobiak eta hilarri bat aurkitu ziren. Garai berdinekoa da Arteko Santutegian aurkitutako IV. eta VI. mendeen arteko kokalekua. Artziniegaren garrantziaren beste datu bat Euskal Herriko txakolinaren laborearen berri izan dela dioen lehen aipamen idatzia da, 864. urtekoa, eta Valpuestako kartularioan aurkitua.

Erdi Aroan, 1.272an hain zuzen ere, Alfontso X.a Jakitunak Herri Gutuna eman zion, Hiribildu bihurtuz. Erdi Aroa gaindituta, Hiribildua harresiz kanpo hedatzen da, batez ere Ameriketan dirutza egiten duten artziniegar ugariengatik.

Ibilbide historiko hau bere arkitekturan islatzen da, estiloen eta garaien elkarbizitzan. Hirigune Historikoan bezala, non oinplano gotikoko etxeak eta XVII. eta XVIII. mendeetako jauregi barroko eta neoklasikoak elkarrekin bizi diren.

*Artziniega es una villa con una prolija historia, ubicada de manera estratégica entre Bizkaia y Burgos, es surcada por antiguos itinerarios comerciales que conectaban la Meseta castellana con la costa vizcaína.*

*Los primeros testimonios son los restos de cerámica de la Edad de Bronce de la cueva de Erretes Tudela. Cerca de allí, en Gordeliz, se descubrieron tumbas y una lápida romana. De la misma época es el asentamiento hallado en el Santuario de la Encina, datado entre los siglos IV y VI. Da fe de la importancia de Artziniega la primera cita escrita que se tiene constancia del cultivo del txakolí en el País Vasco, del año 864 hallada en el cartulario de Valpuesta.*

*En la Edad Media, en el año 1272, el Rey Alfonso X El Sabio le otorga la Carta Puebla convirtiéndola en Villa. Superada la Edad Media, la Villa se expande extramuros, mayormente por los numerosos artziniegarras que hacen fortuna en las Américas.*

*Este bagaje histórico se plasma en su arquitectura, en la convivencia de estilos y épocas, como en el Casco Histórico, donde conviven las casas de planta gótica con los palacios barrocos y neoclásicos de los siglos XVII y XVIII.*

WWW.ARTZINIEGAKOUDALA.EUS

Artziniega Udala · Ayuntamiento

alava turismo .eus

## HIRIGUNE HISTORIKOA
CASCO HISTÓRICO

Artziniegako Hirigune Historikoak Erdi Aroko egitura gorde du, muino baten gainean kokatutako almendra itxura marrazten duten harrizko hiru kaleetan. Osatzen duten eraikinek hainbat garai eta estilotakoak dira, deigarriak dira hauen fatxadetako 40 armarri baino gehiagok. Dorreko Aldapakoa deigarriena da, bere neurriengatik, Arabako handiena.

*Mantiene su estructura medieval de tres calles empedradas que trazan la forma de una almendra encaramada sobre una colina. Los edificios que lo forman son de distintas épocas y estilos, destacan en sus fachadas los más de 40 escudos de armas, el más llamativo es el de Dorreko Aldapa por sus dimensiones, el más grande de Araba.*

1



**Ortiz de Molinillo eta La Camararen Dorrea**
Torre de Ortiz de Molinillo y La Cámara
*S. XVI. Mendea*

2



**Antzinako Udaletxea**
Antiguo Ayuntamiento
*Año 1864. Urtea*

3



**Moja Agustindarren Komentua**
Convento de las Monjas Agustinas
*S. XVI. mendea*

4



**Jasokundeko Ama Birjinaren Parrokia**
Parroquia de N.ª S.ª de la Asunción
*S. XVI. mendea*

5



**Pablo Respaldiza Arratiaren Sutegia**
Fragua de Pablo Respaldiza Arratia
*S. XX. Mendea*

## DORREAK
TORRES

Artziniegan hainbat dorre daude, bai hiribilduan, bai herrietan. Horietako hiru bisitatu ditzakezu, ingurune naturalean barrena dagoen familia-pasealeku batean zehar.

*Artziniega cuenta con diversas Torres, tanto en la Villa como en sus Pueblos, de las cuales puedes visitar tres a través de un paseo familiar por el entorno natural.*



**Mendietako Dorrea**
*Torre de Mendieta*
*S. XV. mendea*



## ARTEKO GURE AMAREN SANTUTEGIA
SANTUARIO DE NUESTRA SEÑORA DE LA ENCINA

500 urte baino gehiago dituen Artea Zuhaitz itzelaren ondoan kokatuta, 1.498an amaitu zen, gotikoaren eta errenazentistaren arteko estilo batean.

Barrualdean hainbat lan aipagarri ditu: balio artistiko handiko erretaula nagusi gotiko-flandestarra; Ama Birjinaren tailu erromanikoa; pinturak horma eta gangetan...

Gainera, lehen zalditegiak izan ziren horretan, gaur **Eleiz Museoa** dago, balio handiko elementu erlijiosoak gordetzen dituena, hala, Arteko Gure Ama 1.954an Koroatu zenean estali zuten mantuak.

*Ubicado junto al imponente Árbol de la Encina, de más de 500 años de edad, el Santuario, finalizado en 1498, tiene un estilo a caballo entre el gótico y el renacentista.*

*En su interior atesora varias obras reseñables como el retablo mayor gótico-flamenco de gran valor artístico; la talla románica de la virgen; pinturas en paredes y bóvedas...*

*Además, en lo que un día fueron las caballerizas hoy se ubica el **Museo Sacro,** que conserva elementos de gran valor eclesiástico como los mantos que cubrieron a la Virgen de la Encina en su Coronación en 1954.*

## JAUREGIAK
PALACIOS

1 **Aranguren Jauregia (Barrokoa)**
Palacio Aranguren (Barroco)
*S. XVIII. mendea*

2 **Mora Jauregia (Neoklasikoa)**
Palacio de la Mora (Neoclásico)
*S. XVIII. mendea*

3 **Valle Jauregia (Barrokoa)**
Palacio Valle (Barroco)
*S. XVII. mendea*

4 **Zabalgoitia Jauregia**
Palacio Zabalgoitia
*1906*



Zabalgoitia Jauregia, diseinu bakarrekoa Euskal Herrian, Mario Camiña arkitektoak egina 1906an eraiki zen Juan Zabalgoitia indianoaren bizileku gisa; konposizio klasizistakoa.

*Palacio de Zabalgoitia, con un diseño único en el País vasco, a cargo del arquitecto Mario Camiña, fue construido en 1906 como residencia del indiano Juan Zabalgoitia; de composición clasicista.*



## UDALETXEA, PILOTALEKUA ETA KASINOA
AYUNTAMIENTO, FRONTÓN Y CASINO

Udalak Eugenio Garayrenkin adostu ondoren garatuak. Garay, bi eraikinen artean dagoen eskulturan irudikatu zuen Quintín de Torre eskultore bilbotarrak.

Frontoia zeharkatzen duen balkoiak jolas-kasinoa hartzen zuten, eta egungo udaletxea kuartel-etxea eta biltegia izan zen. Konplexu honetan, erlojuaren dorrearekin batera, bolatoki berrituaz gain, bi eraikinetako balkoietako hesien motiboak nabarmentzen dira, lanbide desberdinei eskainiak. Guneak belle époqueko urte haietara eramaten gaitu.

*Fueron construidos de acuerdo entre el Ayuntamiento y Eugenio Garay, representado por el escultor bilbaíno Quintín de Torre en la estatua que está entre los dos edificios.*

*La balconada que recorre el Frontón albergaba el casino recreativo, y el actual Ayuntamiento fue casa cuartel y almacén. En este complejo, al que se une la torre del reloj, destacan además de la bolera, los motivos de las rejas de los balcones de ambos edificios, dedicados a diferentes oficios. El conjunto nos traslada a aquellos años de belle époque.*

## ARTZINIEGA MUSEOA ANTZINAKO IKASTETXEA
ARTZINIEGA MUSEOA
ANTIGUO COLEGIO



1.893an eraikia, emakumeen ikastetxea izan zen. Gaur egun **Museo Etnografikoa**ren egoitza da, non gure arbasoen bizimodua, landakoa eta hirikoa, zehatz-mehatz birsortzen da eraikin dotore honetan, izan ginenaren oroimena zaintzen duena.

*Construido en 1.893, fue sede del colegio femenino de la Encina. En la actualidad acoge el **Museo Etnográfico,** que recrea fielmente los modos de vida, rural y urbano de nuestros antepasados en este majestuoso edificio que custodia la memoria de lo que fuimos.*




## SANTXOTENA TAILER-MUSEOA
TALLER-MUSEO SANTXOTENA

Santxotena Tailer-Museoak Xabier Santxotena eskultore nafarraren lana biltzen du, Jorge Oteizaren ikaslea izandakoa. Bere lanaz gozatzeaz gain, artistak bere sorkuntzak gauzatzen dituen tailerra bertatik bertara bisitatzeko aukera eskaintzen da.

*El Taller-Museo Santxotena recopila la obra del escultor navarro Xabier Santxotena, discípulo de Jorge Oteiza. Además de disfrutar de su obra, se ofrece la posibilidad de visitar in situ el taller donde el artista materializa sus creaciones.*